

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

2017ko MEMORIA

Ikerkuntzarako
Zerbitzu
Orokorrak, SGIker

www.ehu.eus/sgiker

Ikerketaren Arloko Errektoreordetza
Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak – SGiker
Errektoretza eraikina
Bizkaiko Campusa
Sarriena auzoa, zk.g.
48940, Leioa– Bizkaia
Tel.: 94 601 50 50
Webgunea: www.ehu.es/sgiker

Eskerrak:

Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. EGEF eta Europako Gizarte Funtza laguntza programak. Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza Saila. Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza.



Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorren ikerkuntzaren laguntza unitateak, UNE-EN ISO 9001 eta UNE-EN ISO/IEC 17025 arauetan oinarritutako kalitate programa batean murgilduta daude.



* Portadaren imagina Jorge Navarro, UPV/EHU.


Edukiak

1. Sarrera.....	4
2. Egitura antolatzailea.....	6
3. 2015-2018 Plan Estrategikoaren harira egindako jarduerak.....	8
4. SGIker Kopurutan.....	19
4.1. Ikertaldeak ta kanpoko erakundeak.....	19
4.2. Servicios realizados.....	23
4.3. Zientzia adierazleak.....	23
4.3.1. SGIkerren aipamena duten zientzia argitalpenak.....	23
4.3.2. SGIkerrek lagundutako doktorego tesiak.....	27
4.3.3. Ikerketa proiektuak.....	28
4.3.4. SGIkerrek biltzar, foro eta mintegietan izan duten presentzia.....	30
4.4. Internazionalizazioa.....	31
4.5. SGIkerren prestakuntza eskaintza.....	34
4.6. Ikerketaren ebaluazioan parte hartzea.....	40
4.7. Giza baliabideak eta baliabide teknologikoak.....	41
4.8. SGIker hedabideetan.....	43
4.9. Ikertzaileen gogobetetasuna.....	44
4.9.1. Gogobetetasun inkestaren emaitzak.....	44
4.9.2. Emandako prestakuntzarekiko gogobetetasunaren jarraipena.....	49
4.10. Emaitza ekonomikoak.....	51
5. 2018rako jardueren plana.....	53
Eranskina: 2018. Urtearen tarifak.....	55

1. Sarrera

Beste urte batez, UPV/EHU Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko SGIker Ikerketa Zerbitzu Orokorrek jardueren memoria aurkezten dute, 2017an lortutako emaitzak erakutsiz, gizarteari begirako leiho bat irekitzeko xedez. Agiri honen bidez, SGIkerrek beren kudeaketan garden izateko konpromisoari eusten diote, eta, gainera, UPV/EHUK zientzia komunitatearen eta oro har gizartearen eskura jartzen dituen aurrerapenen eta baliabide globalen berri ematen dute.

SGIkerrek giza kapital sendoa dute (gehienak doktoreak dira), gai dena zientziaren eta teknologiaren askotariko arloetako lagin konplexuak analizatzeko prozedurak diseinatzeko. Hori lortzeko, aplikazio ugari barne har ditzakeen zientzia azpiegitura batekin jarduten dute. Horretarako, SGIkerretan erabil daitekeen azpiegitura eguneratzeko eta modernizatzeko inbertsio egokia egiten dute.



Martina Casiano Plataforma Teknologikoan, Maria Goyri Animalia Bioteknologiako Zentroan eta Rita Levi Animaliategi berrian ekipamendu berria jarri dute, eta horri esker gehiago babesten dute zuzenean abangoardiako ikerketa. Horrela, gainera, gero eta gertuago gaude lanean sortzen zaizkien arazoei erantzunak eman nahi dizkieten ikertzaile eta teknologoengandik. Modu horretan, erabateko babes ematen da zientzia eta teknologia proiektuak irauten duen bitartean.

SGIkerren gainerako azpiegiturak erosteak eta etengabe berritzeak zerbitzuen eskaintza indartzen du. Horren emaitza zuzenean islatzen da JCRn lehen kuartilean edo dezilean indexatutako zientzia argitalpenen kopuruan eta kalitatean. Gainera, argi eta garbi ikusten da defendatutako doktorego tesi nazionalak eta nazioartekoak, masterreko lanak eta halakoak ugaritu egin direla SGIkerren babesari esker.

Bestalde, inbertitutako baliabideei esker, teknikarien kualifikazioa areagotu dezakegu eta haiek gehiago prestatu eta haien kompetentziak indartu ditzakegu, ikerkuntzari laguntzeko eskariei behar bezala erantzuteko. Gainera, trebakuntza horren bidez, zientzia gero eta gehiago zabal dezakegu hainbat bidetatik: zientzia ekitaldiak antolatuz eta horietan parte hartuz, hedabideekin batera lan eginez eta gaur egungo nahiz etorkizunera begirako teknologia eta prozeduren inguruko ikastaroak antolatuz.

Era berean, gure helburuetako bat, oraindik ere, eskura ditugun baliabideak eraginkortasunez kudeatzea eta antolatzea da. Kudeaketaren esparruan berrikuntzak egin ditugunez eta oro har zientzia komunitatearekin eta bereziki ikertzaileekin dugun harremana hobetu dugunez, kalitatearen ziurtagiriak eta egiaztargiriak lortu ahal izan ditugu ISO 9001 eta ISO 17025 erreferentzia

arauak betez; duela gutxi, gainera, Zerbitzuen Kartak ezarri ditugu, eta kanpoko agenteek egiaztatu dituzte.


Azkenik, aldaketa eta lorpen ugari izan ditugu aurten, giza kapitalaren, irakasle eta aholkulari zientifikoen, Unibertsitateko beste sail batzuetako lankideen, Eusko Jaurlaritzako langileen, zientziaren alorreko ministerioetako langileen eta Europar Batasuneko langileen ahalegin etengabeari esker. Emandako laguntza eskertzen diegu haiei guztiei. Mila esker.

Maribel Arriortua irak.

SGIkerretako zuzendaria

2. Egitura antolatzailea

SGIkerrek azpiegitura sendoa eta kualifikazio handiko langileak dituzte beste unitate eta/edo zerbitzu batzuetan banatuta; unitate eta zerbitzuok, halaber, UPV/EHUren hiru campusetan banatuta daude, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan. SGIkerren organigrama funtzionalaren barruko langile propioek (1. figura, 1. taula) kudeatzen dituzte unitate horiek eta haien azpiegitura zientifiko-teknologikoa. Guztira, 47 lagunek osatutako plantilla teknikoa dago, eta horietatik 41 doktoreak dira, gainera.



1. Irudia. SGIkerren organigrama.

Gune Zientifikoa

GUNEA	ZERBITZUA
Barne Teknologikoa	Analisirako Zerbitzu Zentrala (Arabian eta Bizkaian) Multiespektroskopia Akoplatuen Laborategi Berezia (Raman-MARLAB)
Materialak and Azalerak	Geokronologia eta Geokimika Isotopikoa Laser Tresna Makroportaera-Mesoegitura-Nanoteknologia Neurri Magnetikoak (Bizkaian eta Gipuzkoan) Microskopia Elektronikoa eta Materialen Mikroanalisa Microskopia: Polimeroen Analisa X-Izpiak: Gipuzkoako Unitatea; Molekulak eta Materialak; Arrokak eta Mineralak; XPS Erresonantzia Magnetiko-Nuclearra (3 Kampusetan)
Bioteknologia Biomedikuntza	eta Animaliategia (3 Kampusetan) GEnomika: DNA Bankua; Gene Adierazpena; Sekuentziazio eta Genotipoa; Proteomika 3. Mailako Euste Biologikoaren Laborategia (NCB3) Mikroskopia Analitikoa eta Berezmen Handikoa Biomedikuntzan Erradioisotopoak Entomologia Forensea
Ingurumena	Fitotronak eta Berotegia
Zientzia Historiko Geografikoak	eta Kartografi eta Informazio Sistemak-Zerbitzua
Gizarte Zientziak	Zientiometria Unitatea
Zerbitzu Komunak	Ikerketari Aplikatuko Informatika (Kalkulu Zientifikoa) Berrikuntza eta Kalitate Unitatea

1. Taula. Gune Zientifikoa eta SGIkerren Unitateak.

Zientzia Arloko Unitateek askotariko esparruetako zerbitzuak ematen dituzte: Biomedikuntza eta Bioteknologia, Ingurumena, Materialen Zientziak, Gizarte Zientziak, Historiaren eta Geografiaren Zientziak, Laguntza Teknologikoa eta Zerbitzu Komunak.

3. 2015-2018 Plan Estrategikoaren harira egindako jarduerak

OE.1.- Metologia berritzaileak sortzea

L1.1. Zientzia Parkeko SGiker Unitateak (Martina Casiano Plataforma Teknologia eta Maria Goyri Animalia Bioteknologiako Zentroa)

2016an, SGIkerrak instalazio berriak martxan jartzen eta ekipamendu berria ekartzen hasi ziren, eta 2017an ere lan horretan dihardute: erositako ekipamendu handia instalatu dute eta guztiek erabiltzeko ekipamendu txikia.

“Martina Casiano” Plataforma Teknologikoa:

- Fitotroi eta Negutegi Zerbitzua eta Analisirako Zerbitzu Zentrala: kromatografo ionikoa, eroankortasunaren detektagailu bikoitzarekin eta anperometrikoarekin.
- Analisirako Zerbitzu Zentrala: gasen kromatografoaren sistema, GC/Q-TOF masen espektrometroari akoplatua.
- Analisirako Zerbitzu Zentrala: prestakuntza laborategia martxan jartzeko beharrezko ekipamendu txikia erosi da, besteak beste: laginen digestio azidorako eta konposatu organikoen erauzketarako mikrouhin labe bat, 4 hozkailu, 2 izozkailu, 50 litroko 2 ur ekipo eta funtzio anitzeko inprimagailu bat.

“Maria Goyri” Animalien Bioteknologia Zentroa:

- Bereizmen handiko eta tandem moduko masen espektrometriako sistema, helburu proteomikoak dituen kromatografia likidoko sistemari akoplatua.
- Ekipamendu txikia, hala genomikako unitaterako nola erabilera komuneko prestakuntza genomiko-proteomikoko laborategirako: 30 litroko ur ekipo bat, termozikladore bat, DNAREN elektroforesi automatikorako Pippin Prep sistema bat eta funtzio anitzeko inprimagailu bat, besteak beste.

L1.2. Ekipamendua eguneratzea

Ekitaldi honetan, kontratu-programatik datozen funtsekin eta baliabide propioekin ordaindu da lerketa Zerbitzu Orokorretako prestazio handiko ekipamendu zientifikoaren zati handiena. Bestalde, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak ez du atera FEDER laguntzen eta laguntza osagarrien deialdirik; horren ondorioz, SGIkerrak azpiegitura zientifikoa eta funts bibliografikoak eskuratzeko eta berritzeko laguntzen UPV/EHUREN 2017ko deialdian baino ezin izan dute parte hartu.

SGIkerrak hiru eskaera aurkeztu zituzten 2017ko deialdira, eta haietako biren aldeko ebaluazioa lortu zuten; zehazki, UV-vis-NIR espektrofotometroari dagokion eskariaren aldekoa eta 96 eta 384 kikarako bloke aldagarriak dituen denbora errealeko PCR ekipo bati dagokion eskariaren aldekoa. Horrela, ekipo berri bat erosi eta ekipo zaharkitu bat berritu da, guztira 44.895,45 euroko finantzaketarekin. SGIkerrak funts propioen kargura eman zuten diru laguntza horren beste zatia (57.948,55€).

Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handikoa Biomedikuntzan Zerbitzuak ekipamendu zientifikoa areagotu du: sentikortasun handiko, super bereizmeneko eta zelula biziko mikroskopia sistema fokukide espektral bat erosi du, 391.000 euroan. Sistema horri esker, mota horretako ekipamendua eguneratu ahal izango da, eta zerbitzuen eskaintza handitu. Erosketaren zati bat kontratu-programatik datozen funtsen bidez finantzatu da (258.000€), eta beste zatia, berriz, SGikerren funts propioetatik (133.000€).

Bizkaiko Analisisirako Zerbitzu Zentralak tandemeko masen espektrometriako sistema bat eskuratu du, bereizmen eta sentikortasun handiko kromatografia likidoko sistema bati akoplatutakoa (helburu lipidomiko eta metabolomikoak ditu). Sistema horrek 758.865 euroko balioa du. Sistema horren bidez, laginaren lipidomari eta metabolomari buruzko informazio handiagoa izango dugu, eta beste aplikazio batzuk garatu ahal izango ditugu zientzia biomedikoaren eta elikagaien zientziaren esparruetarako, besteak beste. Kontratu-programaren bidez eta SGikerren funts propioetatik finantzatu da (386.017,83€ eta 372.847,17€, hurrenez hurren).

Zerbitzu horrek, gainera, ekipamendua gaurkotu du: UV-vis-NIR espektrofotometro berri bat erosi du, beste osagai eta software batzuk dituen, espektrometria molekularren aplikazio asko estaltzeko helburuz. Horrela, zerbitzuak askotariko beharrei erantzun ahal izango die. Espektrofotometroak 58.950 euro balio du, eta aparatua erosteko finantzaketa jaso da UPV/EHUrako ekipamendu zientifikoa eta funts bibliografikoak erosteko eta berritzeko laguntzen deialdiaren bidez (23.995,45€), alde batetik, eta SGikerren funts propioetatik (34.954,55€), bestetik.

X Izipien Bidezko Espektroskopia Fotoelektronikoaren (XPS) Zerbitzu Orokorrak X Izipien Espektroskopia Fotoelektronikoko Zerbitzuaren prestazioak zabaldu ditu, honako hauek erosituz: presio handiko gelaxka bat (99.000€) eta Al/Mg anodo duala duen X izpien iturri bat (34.000€). 133.000 euroko inbertsioa egin du horretarako, alde batetik kontratu-programatik (62.855,06€) eta bestetik SGikerren funts propioetatik (70.144,94€).

Genomika: Gene Adierazpena Zerbitzuak denbora errealeko PCR ekipoa berritu du, eta UPV/EHUrako ekipamendu zientifikoa eta funts bibliografikoak erosteko eta berritzeko laguntzen deialdiaren bidez finantzatu da zati bat (20.900€). Ekipo hori beharrezkoa da gene adierazpenaren analisiak, genotipo azterketak eta mutazioen analisiak egiteko, baita protokoloak egokitzeko eta laginak kuantifikatzeko ere. 43.984 euro balio du ekipoa, eta SGikerren funts propioekin finantzatu da gainerako zatia (22.994€).

Azido nukleikoen analizagailu automatikoa ere berritu da, eta, horri esker, lagin ugari analizatu eta kuantifikatu ahal izango da motu automatizatuan, lagin bakoitzeko oso diru gutxi gastatuz. Ekipoak 33.500 euroko kostua du, eta kontratu-programaren funtsekin finantzatu da oso-osorik.

Horrez gain, DNAREN prestakuntzarako elektroforesi automatikoko Pippin Prep sistema bat erosi da, eta horren bidez, small RNAseq liburutegiak sekuentziatu ahal izango dira (miRNA, piRNA, snoRNA eta tamaina txikiko beste RNA batzuk), eta liburutegiak prestatu eta gaur egun dagoen MiSeq ekipoa sekuentziatu ahal izango dira. 16.885 euroko kostua du, eta kontratu-programaren funtsekin ordaindu da oso-osorik.

Genomika: Sekuentziazioa eta Genotipo Azterketak Zerbitzuak ahalmen handiagoa du orain, eta asko murriztu du erantzuteko denbora; izan ere, txip nanofluidikoak kargatzeko eta anplifikatzeko sistema bat erosi du, gaur egungo Fluidigm Biomark plataformarekin bateragarria dena. Sistema hori txip berrienekin bateragarria denez, gene adierazpenerako eta SNP

markatzaileen genotipo azterketetarako proiektuen formatu berriak eskaintzen ditu. 90.000 euroko balioa du, eta kontratu-programari dagozkion funtsekin ordaindu da oso-osorik.

Arabako DNA Bankua batik bat arlo forentsearekin lotutako lagin konplexuen DNA erauzketetan espezializatuta dago, eta DNA erauzteko ekipo bat erosi du, aukera emango diona erantzuteko denbora hobetzeko eta laginak elkarren artean kutsatzeko arriskua murrizteko. 37.537 euroko kostua izan du, eta kontratu-programaren funtsekin ordaindu da osorik.

Azkenik, SGIkerrek, kalitatezko zerbitzu bat emateko helburuz, laginak prestatzeko ekipamendu txiki bat erosi dute; zehazki, laginen digestio azidorako eta konposatu organikoen erauzketarako mikrouhin labe bat, 17.962,17 eurokoa; fusio bidezko lagin prestatetarako sistema bat Geokronologia eta Geokimika Isotopikoko Zerbitzurako, 17.700 eurokoa; eta TEMerako lagin metalikoak prestatzeko ekipo bat, Mikroskopia Elektronikoko eta Materialen Mikroanalisisiko Zerbitzurako, 3.300 eurokoa.

L1.3. Langileei arlo/teknika/metodologia esanguratsuen inguruko prestakuntza ematea

2017. urtean 17 prestakuntza ikastaro eskaini eta gauzatu dira, eta guztira 195 pertsonak (118 emakumek eta 77 gizonek) parte hartu dute.

SGIkerren 20 unitatek giza laguntza eta laguntza teknikoa eman dute: guztira 43 prestakuntza eta ikerketa ekintza egin dira, UPV/EHUko 16 masterretan. Master horien artean, berezko titulu bat, unibertsitate arteko 4 master nazional eta unibertsitate arteko nazioarteko master bat daude.

2018. urtean 22 ikastaro berri eskaini dira, eta horien artean nabarmentzekoak dira X-lzpien Difrakzioko kurtso berri bat, bi espezialitatetan banatuta, Trasmisio Mikroskopia Elektronikoko ikastaroaren edizio berri bat eta Ingurumen Laginen Analisisiko kurtso berri bat.

Bizkaiko Analisisirako Zerbitzu Zentralak metodologia berri bat sortu du margo akrilikoaren artea datazioa Py-GC-MSren bidez ikerketzeko eta analisi egiteko. Lan honen alboan masterreko tesi bat zuzendu da.

Mikroskopia Analitikoa eta Bereizmen Handikoa Biomedikuntzan Zerbitzuko teknikariek Medikuntza Graduoko bigarren mailako "Ikerketarako Sarrera" irakasgaiari kolaboratu dute, 2017ko irailaren 18tik 21era bitartean eskola praktikoetan parte hartuz.

L1.4. Diziplina askoko zerbitzuak ematea eta teknika analitikoak txertatzea

Guztira UPV/EHUko 246 ikertzaile nagusi (155 gizon eta 91 emakume) artatu dira, eta 219 enpresa eta norbanako (kanpoko agenteak).

Guztira barneko 2127 eta kanpoko 708 zerbitzu eman dira.

Gainera, SGIkerrek laguntza eman diete atzerriko 12 erakunderi (horietatik 7 unibertsitateak dira). Horietatik guztietatik, Europar Batasunaz kanpoko herrialdeen esparruan, Estatu Batuetako eta Suitzako hiru erakundeak eman zaizkio zerbitzu (horietatik bat, Suitzako, unibertsitatea da).

348 ikerketa proiektu babestu dira: 17 Europakoak dira, 108 nazionalak, 190 herrialdekoak eta 33 finantzazio pribatukoak.

Kontratu eta lankidetzak hitzarmenak sinatzea agente fidelizatuekin:

- ✓ Lankidetzak Ertzaintzako polizia zientifikoarekin, aholku gaietarako, analisiak egiteko eta prestakuntzarako.
- ✓ Lankidetzak Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailarekin, legez kanpoko substantzia adiktiboak laginei buruzko azterlan eta txostenetarako.
- ✓ Hitzarmena Salamancako Centro de Láseres Pulsados Ultracortos zentroarekin (CERN, Zuitza), Laser laborategia jarraitutasunez erabiltzeko.
- ✓ Sarbide mugatuko 4 kontratu sinatzea eta berritzea, SGIkerren azpiegiturak erabiltzeko, ingurugiro sozio-ekonomikoko beste 4 erakunderekin.
- ✓ Bizkaiko Analisisako Zerbitzu Zentralean, zenbait lan egin dira Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen, Valentziako Unibertsitatearen eta Alcalako Unibertsitateko INQUIFOR taldearen artean. Gainera, harremanetan hasi dira Laussaneko Unibertsitateko (Suitza) **Ecole des Sciences Criminales** Nazioarteko Zentro Forentsearekin, laginak aztertzeko.

L1.5. Ezagutza berritzailearen sistematizazioa eta kudeaketa

Unibertsitateaz kanpoko 35 pertsonak (19 emakume eta 16 gizon) parte hartu dute SGIkerrek eskainitako 11 prestakuntza ikastarotan.

UPV/EHUko 46 ikasleak (24 emakume eta 22 gizon) parte hartu dute SGIkerrek eskainitako 10 prestakuntza ikastarotan.

Trebatzen ari diren 58 ikertzaileak (36 emakume eta 22 gizon) parte hartu dute eskainitako 17 ikastarotan.

SGIkerrek, 2017ko martxoan, biosegurtasunean eta biokontentzioan espezializatutako ikastaro teoriko bat eman dute, eta UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileen kolektiboko nahiz AZPko 20 lagunek parte hartu dute (13 emakume eta 7 gizon), baita beste erakunde batzuetako kideek ere.

OE.2.- Hainbat kalitate estandar ezartzea

L2.1. ISO 9001 ziurtagiria duten unitate gehiago

Bestalde, honako unitate hauen kalitate ziurtagiriaren berrebaluazio positiboa egin da, ISO 9001 aruari jarraikiz:

- Arabako Analisisien zerbitzu nagusia
- Bizkaiko Analisi Zerbitzu Zentrala
- Bizkaiko EMN unitatea
- Gipuzkoako EMN unitatea
- Polimeroak Karakterizatzeko Zerbitzua, Mikroskopia
- Raman-MAKLAB laborategi singularra
- X izpien zerbitzua: XPS unitatea
- X izpien zerbitzua: molekula eta materialak
- Arabako animaliategia
- Bizkaiko animaliategia
- SGIkerren prestakuntza etengabeko ikastaroak

Horrez gain, 2017an, duela gutxi erositako 2 ekipo berri jarri dira Bizkaiko Analisisirako Zerbitzu Zentralean.

Beste unitate batzuetan txertatzeko prozesuari jarraipena emateko, Makroportaera-Makroegitura-Nanoteknologia Zerbitzua ziurtagiriaren irismenaren barruan kokatzeko lanak hasi dira, eta orobat egin da Fitotroiak eta Berotegia dagokionez.

L2.2. ISO 17025 ziurtagiria duten saiakuntza gehiago

ISO 17025 arauaren araberako analisi tekniken akreditazioaren berrebaluazio positiboa SGIkerren Bizkaiko Analisi Zerbitzu Zentrala.

Gainera, Sekuentziazio eta Genotipo Azterketen Zerbitzuan, akreditazioa berretsi da ahaidetasun biologikoa analizatzeko tekniken erreferentzial honetan.

Azkenik, oraindik ere ISO 17025 arauaren peko teknika eta ekipo berriak integratzeko jarduerak egiten dira; esate baterako, ICP-AES ekipo berriak eta TOC teknikarekin ur laginen guztizko karbono organikoa analizatzeko ekipoak.

L2.3. SGIkerretara egokitzen diren ISO 16555-1 espedientearen alderdiak txertatzea

Jarduketa lerro honetan, oraindik ere zehazteko dago IEren Zuzendaritza bakoitzak zer-nolako ardura duen ISO 16555-1 Exp- arauan jasotako I+G+b-ko prozesuak kudeatzeko. Alabaina, SGIkerreko teknikariek berdin-berdin parte hartu dute zaintza teknologikoko jarduerak egiteko eta euren espezializazioko azpiegitura eta teknika berrienak ezagutzeko biltzar, mintegi eta bileretan.

L2.4. Zerbitzuen Gutuna egitea

2017an, SGikerren lehen Zerbitzuen Karta ziurtatu da, Raman-LASPEA Zerbitzuan txertatua. Q-epea taldeko auditoreek egin dute ebaluazioa, eta, aldeko txostena idatzi ondoren, erakunde horrek berak ziurtagiria eman du.

2017. urtean onartu du UPV/EHUko Idazkaritza Nagusiak XPS unitatearen zerbitzu karta.

Jarduera horietan aurrera egiten jarraitzeko, beste zerbitzu bat karta egitea aurreikusi da: Fitotroia eta Berotegia.

L2.5. Unitate guztien administrazio kudeaketa errazteko eta estandarizatzeko "Enterprise Resource Planning" (ERP) bat garatzea

Bukatu da plataformako erabiltzaileen, teknikarien eta administrarien moduluen garapena. Orain, amaitzeaz daude informazioa tauletan kargatzeko lanak, eta, datozen egunotan, lehen probak egingo dira unitate pilotuetan tresna martxan jarri aurretik.

OE.3.- Lankidetzaren sareak ugaritzea

L3.1. Beste ikastegi batzuetako egonaldiaren edo harreraren bidez prestakuntza espezifikoko jarduerak indartzea

Teknikariak

SGIker zerbitzuetako EMN solidoko teknikari Iñaki Santos doktoreak egonaldi bat egin zuen Orleansen (Frantzia) urtarrilaren 23tik 27ra, **National Center for Scientific Research (CNRS)** zentroan, nukleo kuadrupolarren eta Si-Al korrelazioen esperimentu berrietarako sekuentziak ebazteko.

Zeiss marka komertzialak Bereizmen Handiko Mikroskopia Biomendikuntzan Zerbitzuko teknikari Ricardo Andrade doktoreari gonbidapena egin zion, **Microscopy Customer Center** zentroko aplikazioak eta azpiegitura ezagutzera joan zedin Alemaniara 2017ko apirilaren 24tik 25era.

Gene Adierazpen Unitateko Irantzu Bernales doktoreak egonaldi bat egin zuen Heidelbergeko (Alemania) European Molecular Biology Laboratory (EMBL) laborategian, 2017ko ekainaren 19tik 23ra, **High Throughput Sequencing**-en bitartez gene transkripzioaren eta adierazpenaren analisirako (datuen analisia barne) teknika berriei buruzko trebakuntza jasotzeko.

Proteomika Unitateko teknikari Kerman Aloria doktoreak egonaldi bat egin zuen Suitzako Ruedi Aebersold Laborategian, 2017ko ekainaren 26tik 30era, Animalia Bioteknologiarako "María Goyri" zentroan instalatutako ekipamendu berriari esker eskuragarri dagoen DIA metodoaren prozedurak eta funtzionamendua ezagutzeko.

Egonaldiak eta ikertzaileen kanpoko lanak SGIkerren Laser Laborategian, CERNen (Suitza) RD50 proiektuaren barruan. Denera 7 pertsona hartu dira (2 emakume eta 5 gizon) 2017ko ekainaren 1etik uztailaren 31ra. Honako hauek dira haien erreferentzia zentroak: CERN/CSIC, Max Planck Institute for Physics (Munich), CSIC-IFCA, MPP Munich, University of Liverpool eta ETH (Zurich).

Gizarteari begirako jarduerak

2017ko lehen hiruhilekoan, Goi Mailako Prestakuntza Moduluak 2 emakume eta 3 gizon hartu dira hiru hilabetez, Lantokiko Prestakuntza programaren barruan. Zentro hauetatik etorri dira: Elorrieta Erreka Mari LHII eta San José de Calasanz LHII. Programan parte hartu duten ikasleek praktiken amaierako memoriak aurkeztu dituzte 2017ko maiatzaren 15ean eginiko dibulgazio jardunaldi baten bitartez.

Zenbait jarduera egin dira DBHko ikasle gazteen artean zientziaren eta ikerkuntzaren inguruko bokazioa pizteko. Zehazki, Bilboko La Salle ikastetxeko 26 ikasleek parte hartu dute jarduera hauetan:

- Zientziometria Unitateak tailer hau eman zuen 2017ko urtarrilaren 11n (asteazkena): "¿Dónde puedo encontrar información de calidad sobre drogas, fármacos y adicciones?"
- Gipuzkoako Erresonantzia Magnetiko Nuklearreko Unitateak tailer hau eman zuen 2017ko urtarrilaren 18an: "Caracterización de muestras de drogas y fármacos mediante Resonancia Magnética Nuclear (RMN)".
- Bizkaiko Genomikako Zerbitzuak eta Analisisirako Zerbitzu Zentralak tailer hau eman zuen 2017ko urtarrilaren 24an: "¿Complementos vitamínicos estimulantes o drogas ilegales?"

OE.4.- Zientzia komunikaziorako kanalak hobetzea. SGIker marka indartzea

L4.1. Biltzarretan parte hartzea zientzia ekarpenak eginez, eta barneko zein kanpoko ikertzaileentzako workshopak antolatzea

Luís Bartolome doktore eta Bizkaiko Analisisirako Zerbitzu Zentraleko teknikariak gonbidatu gisa parte hartu zuen Pint of Sciencen. Hitzaldi zientifiko horretan, gaur egun dokumentu moderno samarrak datatzeko dauden metodologiak erakutsi ziren, eta horien guztien artean DATINK metodologia nabarmendu zen, % 100 EHUen eginikoa.

Iñaki Echeverria jaunak, UPV/EHUko SGIker Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorretako koordinatzaileak eta AEBioS Biosegurtasunaren Espainiako Elkarteko buruak, hasiera eman zion Madrilen apirilaren 17 eta 28an egin zen Biosegurtasunaren Europako Elkartearen (EBSA) 20. kongresuari.

Ikerketari aplikatutako Informatika Zerbitzu Nagusiko (Kalkulu Zientifikoa) teknikariek UPV/EHUko Udako Ikastaroetako "**Molecular approaches, methods and techniques in animal ecology**" ikastaroan parte hartu zuten, eta 2017ko ekainaren 28tik 30era egindako jarduera praktikoetan lagundu zuten; 17 pertsonak parte hartu zuten (9 emakume eta 8 gizon).

Osasun Zientzien Aragoiko Institutuak Iñaki Echeverria gonbidatu zuen Centro de Investigaciones Biomédicas de Aragón (CIBA) zentroan biosegurtasunari eta biokontentziari buruzko ikastaro bat emateko, 2017ko irailaren 18tik 22ra, AEBIOSen laguntzarekin.

Maite Álvarez doktoreak, SGIkerren DNA Bankuko teknikariak, 2017ko urriaren 2tik 4ra Bilbon eginiko 4th International Conference on Environmental Specimen Banks konferentzian parte hartu zuen, eta "**Biobanks: our legacy**" izeneko inaugurazio hitzaldia eman zuen.

Iñaki Santos doktorea ICV-CSICek antolatutako III Curso de Resonancia Magnética Nuclear en Estado Sólido ikastarora gonbidatu zuten prestatzaile gisa. Ikastaroa 2017 urriaren 23tik 25era egin zen, Madrilen.

SGIker Ikerketa Zerbitzu Orokorrek Ikerketaren arloko Errektoreordetzeko Ebaluazio Zientifikoen Zerbitzuen I. Bileran izan ziren, Granadan, 2017ko urriaren 26 eta 27an.

Denera, zientzia arloko 10 kongresu eta bileratan parte hartu da poster eta ahozko hitzaldiekin. Banan-banan berezita agertzen dira 4.3.4 atalean (SGIkerrek biltzar, foro eta mintegietan izan duten presentzia).

L4.2. Unitateak indartzeko difusio planak garatzea

SGIkerren Argazki Zientifikoen VII. Lehiaketaren sari banaketa 2017ko otsailaren 17an egin zen, Bizkaiko Campuseko Biblioteka Nagusiko Bileraren Aretoan (Leioa Erandio eremua), honako hauek buru zirela: UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreorde José Luis Martín, SGIkerreko zuzendari Maribel Arriortua eta Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko katedradun Juan Miguel Aréchaga irakasleak.

Makroportaera-Makroegitura-Nanoteknologia Zerbitzuak "Últimos Avances en la Microscopía de Fuerza Atómica (AFM)" izeneko mintegi bat antolatu zuen. 2017ko azaroaren 20an egin zen, eta

Asylum Research (Oxford Instruments) enpresak parte hartu zuen. Mintegi horretan, 26 pertsonak parte hartu zuten (19 emakume eta 7 gizon).

L4.3. SGIkerrek zientzia ekoizpenean laguntzen duelako (ekarpenak, jabetza intelektuala...) berariazko aitortzea indartzea

2017an 387 zientzia artikulua argitaratu ziren SGIkerrek zuzenean aipatuta. 2004az geroztik 2.948 artikulua metatu dira.

SGIkerrek ikerketa taldeei emandako laguntzaren kalitatea monitorizatu dute. Horren helburuetako bat da lehentasuna ematea azpiegitura eta langileei dagozkien beharrei. Emaitza da SGIkerreko langileen eta teknologiaren bitartez eginiko argitalpenen % 68,4 aldizkariaren rankingeko Q1 kuartilean daudela eta % 22,1 Q2 kuartilean. Orotara, batez beste argitalpenen % 90etik gora Q1 + Q2 kuartiletan egotea lortu da.

Doktorego tesien kopuruari dagokionez, 2017. urtean 105 tesi defendatu ziren SGIkerretako azpiegituraren eta langileen laguntzarekin. Horietatik guztietatik 58 nazioartekoak izan ziren.

L4.4. Komunikabideetan agertzea

SGIkerretan eginiko jarduerekin eta analisiekin lotutako 4 albiste argitaratu dira prentsa idatzian. Horrez gain, 3 erreportaje eman dira irratian, horietako bat asteroko emisio batean kolaborazio gisa, eta albiste bat eman da telebistan, EITBn, ahaidetasun probekin lotuta. Gainera, Interneten argitaratutako albiste bat ere jaso da.

L4.5. Ekipamendu berria aurkezteko jardunaldiak

Makroportaera-Makroegitura-Nanoteknologia Zerbitzuak "Bruker AFM Workshop – Nanomechanical, Nanoelectrical and FastScanning" izeneko jardunaldi bat antolatu zuen Bruker enpresaren babesarekin, eta 2017ko azaroaren 28an egin zen. Jardunaldi horretan 32 pertsonak parte hartu zuten (22 emakume eta 10 gizon), eta helburua zen Indar Atomikoko Mikroskopiaren bidezko analisirako eskura dagoen ekipamendua eguneratzea.

L4.6. Hain ustiatuta ez dauden zientzia arloetako eta gorabidean diren zientzia arloetako prestakuntza eskaintza eguneratzea

Ikerketari laguntzeko tailer eta jardunaldiak antolatzea eta/edo ematea:

- ✓ "Nola kudeatu zure ikertzaile karrera" tailerra eman zen 2017ko uztailaren 12tik 21era, UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko Donostiako Eskola Politeknikoan. 23 pertsona bertaratu ziren (17 emakume eta 6 gizon).

- ✓ Ikerketa lanean hasteko tailerrak, Doktorego Eskolarako. 2017ko otsailaren 6an eta 13n egin ziren, eta 28 pertsonak parte hartu zuten (17 emakume eta 11 gizon).
- ✓ SGIkerrek ikerketaren hastapenari buruzko tailerren bost saio eman dituzte, doktorego masterretako prestakuntzaren barruan.
 - Kuaternarioa: Ingurugiro Aldaketak eta Giza Oinatza, 2017ko otsailaren 1ean. 11 pertsona bertaratu ziren: 6 emakume eta 5 gizon.
 - Enpresa Zuzendaritza Berrikuntzaren eta Internazionalizazioaren Ikuspegitik Masterra, 2017ko martxoaren 7an eta 9an. 6 pertsonak parte hartu zuten; denak gizonezkoak.
 - Enpresa Zuzendaritza Berrikuntzaren eta Internazionalizazioaren Ikuspegitik Masterra, 2017ko azaroaren 21 eta 23an, edizio berri batean. 29 pertsonak parte hartu zuten: 15 emakume eta 14 gizon.
 - Analisi Forentsea Masterra, 2017ko azaroaren 13an. 22 pertsonak parte hartu zuten: 18 emakume eta 4 gizon.
 - Itsas Ingeniaritza eta Ingeniaritza Nautiko eta Itsas Garraioa Masterra, 2017ko azaroaren 27an. 10 pertsonak parte hartu zuten: 1 emakume eta 9 gizon.
- ✓ 2017ko apirilaren 27an, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzak irakasleen lehiakortasuna garatzeko sustatutako Iraker Programa egin zen, eta 18 irakasle eta ikertzailek parte hartu zuten: 11 emakumek eta 7 gizonek.

OE.5. – SGikerretako langileen gaitasunak areagotzea

L5.1. Urteko prestakuntza plana mantentzea

SGikerretako langileek guztira 50 prestakuntza jardueratan parte hartu dute 2017an; zehazki, 70 parte hartze izan dira prestakuntza ikastaroetan.

L5.2. Teknikarien etengabeko prestakuntza

SGikerretako langileek 1186 trebakuntza ordu jaso dituzte guztira; hau da, SGikerrei atxikitako pertsona bakoitzak 22 ordu egin ditu, lanaldiaren % 1,22.

L5.3. Barne prestakuntzako prozesuak

SGikerretako 4 teknikarik ikasle gisa parte hartu dute SGikerrek antolatu eta emandako 2 prestakuntza jardueratan.


4. SGIker Kopurutan

Zehazturiko aginte taulan, hurrengo atalen bidez, informazio esanguratsua eta egindako inbertsioen eraginkortasunaren joera azaltzen da.

4.1. Ikertaldeak ta kanpoko erakundeak


UPV/EHUko ikertzaileak

UPV/EHUko ikertzaile nagusi (IN) gehiagok erabili dituzte SGIkerretako unitateek emandako zerbitzuak. 2. irudian ikus daitekeenez, 246 erabiltzaile izan dira guztira, 2016an baino 18 gehiago. Emakume ikertzaileetan gertatu da gorakada handiena (%11); gizonen kopurua, berriz, % 6 handitu da.



2. irudia. 2013-2017 arteko barne ikertzaile nagusien (IN) kopurua..

Bestalde, 2017. urteko ikertzaileen genero banaketa ere jaso da (3. irudia).




3. irudia. 2017ko erakundeko ikertzaileak, generoaren arabera.

Kanpoko erakundeak eta partikularrak

UPV/EHUtik kanpo eskatu diren lanei dagokienez, 219 kanpoko erakundeak eta partikularrek eskatutako 708 zerbitzu eman dituzte SGIkerrek 2017an (2. taula). Lehen sailkapena dela eta, 123 enpresak dira; 587, emandako zerbitzuak; 96, partikularrak; eta 121, emandako zerbitzuak (4. irudia).


PERTSONA FISIKOAK ETA ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA PRIBATUAK	ERAKUNDEAK	ZERBITZUAK
Erakunde pribatuak	68	285
Erakunde publikoak	55	302
Particularak	96	121
Totala	219	708

2. taula. Erabiltzaileak eta prestatutako zerbitzuak.




4. irudia. Kanpoko eskatzaileek (enpresek eta partikularrek) 2013-2017 artean izandako bilakaera.

5. irudian, barne eta kanpo eskatzaileen kopuruaren arteko lotura erakusten da, eta 6.ak, berriz, SGIkerretako arloek prestatutako erakundeen eta zerbitzuen arteko banaketa jasotzen du.



5. irudia. Barneko eta kanpoko eskatzaile kopuruaren arteko proportzioa.



6. irudia. SGIkerretako arloek prestatutako erakundeen/zerbitzuen banaketa.

Bestalde, 3. taulak kanpoko erakundeen jatorri geografikoa eta zerbitzuak eskatu dituzten unibertsitateen kopurua erakusten du.

JATORRIAREN ARABERA	ERAKUNDEAK / ZERBITZUAK	UNIBERTSITATEAK / ZERBITZUAK
EAEkoak	67/443	-/-
Espainiako gainerako autonomia erkidegoetakoak	44/107	19/41
Errezuma Batua	4/5	4/5
Suitza	2/6	1/1
Portugal	2/4	2/4
Italia	1/13	-/-
Frantzia	1/7	-/-
Estatu Batuak	1/1	-/-
Belgika	1/1	-/-
Totala	123/587	26/51

3. taula. Kanpoko unibertsitateen jatorria (partikularrak alde batera utzita), unibertsitateak adierazita.


Azkenik, 4. taulan kanpoko erakundeen tipologia adierazten da. Aintzat hartu behar da erakunde batzuk sailkapen batean baino gehiagotan daudela.

ERAKUNDE MOTAREN ARABERA	ERAKUNDEAK
Unibertsitateak	26
Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen erakundeak	24
Ikerketa zentro publikoak	3
Fundazioak	32
Sozietate mugatuak	20
Sozietate anonimoak	27
Administrazio publikoak	14
Kooperatibak	3
Beste batzuk	1

4. taula: Kanpo erakunde erabiltzaileen tipologia.

4.2. Zerbitzuak

2017an, guztira, 2127 zerbitzu eman zaizkie UPV/EHUko ikertzaileei, eta 708 zerbitzu kanpoko erakunde eta pertsoneri (fakturak igorrita). 7. irudian, zerbitzuok 2013. urtetik izandako bilakaera ikus daiteke.



7. irudia. Emandako zerbitzuen kopuruaren bilakaera.

2004-2017 artean, SGIkerrek 26.186 zerbitzu eman dizkiete ikertzaileei guztira.

4.3. Zientzia adierazleak

SGIkerrek oinarrizko laguntza ematen diote Euskal Herriko erakunde akademiko nagusiaren kanpoan zein barruan egiten den ikerkuntzari. Horrela, zientzia argitalpenak, doktorego tesiak, ikerketa proiektuak, eta unitateetako teknikariek parte hartu duten biltzar, foro eta mintegiak adierazle garrantzitsuak dira SGIkerrek ekitaldi bakoitzean izan duten zeregina neurtzeko.


4.3.1. SGIkerren aipamena duten zientzia argitalpenak

Debemos resaltar el crecimiento experimentado en el número de publicaciones que se han realizado con el apoyo de las diferentes Unidades de los SGIker durante los últimos cuatro años, con un incremento del 15% del volumen de la producción científica en el periodo 2014-2017 respecto al periodo 2011-2013. Respecto a la calidad de las publicaciones, hay que señalar también que las 387 publicaciones apoyadas durante el ejercicio 2017, mantienen un alto porcentaje de *papers* publicados en revistas de gran impacto, pertenecientes al primer y segundo cuartil, e incluso se debe indicar que un 42% del primer cuartil, se sitúan en entre el primer decil de su área (Tabla 5, figura 8).

Nabarmendu behar da azken bost urteotan argitalpen gehiago atera direla SGikerretako unitateen babesarekin; zehazki, 2013-2017 artean, 2011-2013 aldiarekin konparatuta, % 15 areagotu da zientzia ekoizpenaren bolumena. 2017an erregistraturiko 387 argitalpenen kalitateari dagokionez, azpimarratzekoa da nabarmen gora egin duela lehen eta bigarren kuartileko inpaktu handiko aldizkarietan argitaraturiko ekarpenen ehunekoak (5. taula, 8. irudia).

	Q1	Q2	Q1+Q2	D1
2013	68,0	25,7	93,7	Datu ezezaguna
2014	69,7	24,8	94,5	Datu ezezaguna
2015	73,4	23,1	96,5	Datu ezezaguna
2016	74,1	20,0	94,1	Datu ezezaguna
2017	68,4	22,1	90,5	

5. taula. Argitalpenen ehunekoak, kuartilen arabera.



8. irudia. SGikerrek babesturiko eta Q1 eta Q2 inpaktuko aldizkarietan kaleraturiko argitalpenen ehunekoak.

2017an SGikerren laguntzarekin sortutako ekoizpen zientifikoaren barruan daude Geozientziak eta Kimika arloetan askotan aipatua izanaren kategoria (highly cited paper) lortu duten bi argitalpen; izan ere, artikulua onenen % 1en artean gelditu dira beren arloetan:


- (1) Aranburu A, Luis Arsuaga J, Sala N. *The stratigraphy of the Sima de los Huesos (Atapuerca, Spain) and implications for the origin of the fossil hominin accumulation*. Quaternary International 2017 MAR 17;433:5-21.

(2) Smith NA, Zhang P, Greenough SE, Horbury MD, Clarkson GJ, McFeely D, Habtemariam, A, Salassa, L, Stavros, VG, Dowson, CG ; Sadler, PJe. *Combating AMR: photoactivatable ruthenium(II)-isoniazid complex exhibits rapid selective antimycobacterial activity*. Chemical Science 2017 JAN 1;8(1):395-404.

Jarduketa lerro hau oso garrantzitsua da; izan ere, helburu du langileen, azpiegituren eta beste zientzia baliabide batzuen deialdi publikoetan lehiatzen jarraitzeko curriculum sortzea eta emaitza onak lortzea.

Bat etorri gure ekoizpen zientifikoko datu basetik ateratako informazioaren arabera (iturriak: Web of Science —WOS—, Thomson Reuters-ena; Scopus, Elsevier-ena; Google Scholar; eta zerbitzu bakoitzaren memoria zientifikoak), SGIkerrek 2.948 eman dituzte egin dute 2004. urteaz geroztik.

Jarraian, 9. irudian, SGIkerrek azken zazpi urteotan lagunduriko zientzia argitalpenen kopurua azaltzen da.




9. irudia. SGIker zerbitzuen ekarpena izan duten argitalpenak 2012-2016 aldian.


* 2017. urteari dagokion publikazio kopurua behin behinekoa da, data basetan, erregistro berriak, etengabe sartzen dira eta (2018ko apirilean eguneratua).

Zientzia ekoizpenari buruzko gure datu basetik ateratako informazioaren arabera, eta Researcher ID programaren azken eguneratzearen arabera, SGIkerrek, 2004-2017 artean, Journal Citation Reports (JCR) argitalpenean bildutako inpaktu faktorea duten aldizkarietako 2.948 argitalpenetan izan dute aitortpena. Horietatik guztietatik, gaur-gaurkoz, WOSek 1.825 artikuluren aipamen bibliometrikoaren informazioa ematen du. Artikulu horiek, bada, 31.510 aipu sortu dituzte: batez beste, 17,27 aipu artikuluko bakoitzeko, eta 66ko h inpaktua. Adierazleok izugarri areagotu dira 2016an bildutako datuen aldean; urte hartako aipuak 25.303 izan ziren guztira, hau da, batez beste 16,3 aipu artikuluko bakoitzeko eta 59ko h inpaktu faktorea.

A10. irudian eta B10. irudian ikus daiteke adierazle bibliometriko horien adibide bat: SGIkerren lagunduta egindako ekarpenak, gaien arabera sailkatuta.



A10. irudia. WOSeko zientzia ekoizpenaren banaketa.



B10. irudia. WOSeko zientzia ekoizpenaren banaketa, artikulua gehienak dituzten gaien arabera.

Lan honi esker, gainera, prestakuntza handiko langileak eta azpiegitura lehiakorra dituzten zerbitzuen laguntzarekin lortutako kalitatezko emaitzen gaineko ikuspegi gardena eta osoa eskaintzen zaio komunitate akademikoari.


Webgune honetan dago Researcher ID atarirako esteka zuzena:

<http://www.researcherid.com/rid/A-5759-2012>.

4.3.2. SGIkerrek lagundutako doktorego tesiak

Ekipoak eta teknikariak finantzatzeko deialdi publikoetan eskaturiko adierazleak eta kalitate irizpideak ezarri ditugunez, kontu handiz egin dugu SGIkerretako zerbitzu eta unitateen baliabideak erabili dituzten eta UPV/EHUn egin diren doktorego tesien gaineko jarraipena.

Horren emaitza gisa, 2017an egindako 105 doktorego tesi identifikatu dira; eta guzti-guztiak UPV/EHUn defendatu dira. Hala, tesien kopurua zertxobait handitu da 2016ko ekitaldiaren aldean, orduan 85 tesi egin baitziren. SGIkerren laguntzarekin eginiko doktorego tesien kopuruak gorako joerari eusten dio oro har (11. irudia).




11. irudia. Azken 5 urteotan lagundutako doktorego tesien banaketa eta joera.

Hala, denera, 2017an SGIkerreko unitateetako baten laguntzarekin eginiko tesien ehunekoa % 17 izan da UPV/EHUn irakurri direnen artean, ia iaz bezala. Izan ere, alde batetik gora egin du Gizarte eta Lege Zientzien eta Arte eta Giza Zientzien arloetan defendatutako tesi kopuruak eta, beste alde batetik, aurten defendatu dira aurreko programetakoak ziren baina araudi berriagatik 2017. urteko epemuga zuten tesiak.

Gainera, 2017an, SGIkerretan egindako doktorego tesien % 55,2 nazioartekoak izan dira; UPV/EHUn defendaturiko tesi guztietatik, berriz, % 31,15 izan dira nazioartekoak.

Zientzia esparruei erreparatuta (12. irudia), ikusi da 2017an egindako tesi gehienak Zientzia Esperimentalen arlokoak direla (% 66); ondoren, Ingeniaritza eta Arkitekturaren arlokoak (% 18), Osasunaren Zientzien arlokoak (% 15) eta Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak (% 1).

2017an irakurritako eta SGIkerrek lagundutako 105 tesietatik, emakumeek 58 defendatu dituzte, eta gizonak, berriz, 47. Zientzia arloaren arabera banaketa 12. irudian ageri da.



12. irudia. SGIkerrek lagundutako doktorego tesien banaketa, ezagutza arloen eta generoaren arabera.

4.3.3. Ikerketa proiektuak

2017. urtean, SGIkerrekin lan egin duten 246 ikertzaile nagusiek 348 ikerketa proiektu zuzendu dituzte guztira, eta horietatik 315 finantzazio publikoko eskualdeko, nazioko eta nazioarteko proiektu gisa sailkatu dira (6. taula). Gainerako 33 proiektuak finantzazio pribatukoak dira: 30 enpresekin egindako kontratuak dira, 2 erakunde pribatuen deialdiak eta 1 hitzarmenak (7. taula).

IKERKETA PROIEKTUAK FINANTZIAZIO PUBLIKOA	2013	2014	2015	2016	2017
Nazioartekoak	13	11	10	15	17
Nazionalak	120	97	100	112	108
Eskualdekoak	263	266	210	159	190
Guztira	396	374	320	286	315


6. taula. SGIker zerbitzuen laguntzarekin egindako finantzazio publikoko ikerketa proiektuak.

IKERKETA PROIEKTUAK FINANTZIAZIO PRIBATUA	2013	2014	2015	2016	2017
Enpresekin egindako kontratuak	28	27	30	38	30
Erakunde pribatuen deialdiak	4	4	0	2	2
Ekintza bereziak	1	0	0	0	0
Hitzarmenak	0	2	3	3	1
Guztira	33	33	33	43	33

7 taula. Finantzazio pribatua jaso duten proiektuak.

13. irudian zerbitzu eta unitate bakoitzak lagundutako eta UPV/EHUri emandako ikerketa proiektuen kopurua agertzen da, erakundeka antolatuta.

Irudi horretan 742 proiektu daude guztira; hots, hainbat alditan proiektu berbera babestu dute zenbait zerbitzuek. Horrenbestez, argi geratzen da lotura dagoela unitateen eta euskarri ematen zaien proiektuen diziplina askotarikotasunaren artean.



13. irudia. Babesa eman zaien ikerketa proiektuen kopurua.

4.3.4. SGIkerrek biltzar, foro eta mintegietan izan duten presentzia

2017. ekitaldian, aholkulari zientifikoek eta teknikariek partaidetza aktiboa izan dute: guztira, ekarpen zientifikoak egin dituzte 10 biltzar, jardunaldi, mintegi eta workshopetan.


Ondoren, kronologikoki zerrendatzen dira 10 parte hartzeak:

- ✓ (1) Kongresuaren sarrera. **20th Annual meeting - EBSA conference**. Madril, 2017ko apirilaren 25etik 28ra.
- ✓ (2) Materials characterization by X-ray diffraction techniques. **XIX World Congress on Materials Science and Engineering**. Roma, 2017ko ekainaren 12tik 14ra.
- ✓ (3) La Historia de Mussi, la importancia de ser un animal de laboratorio. **XIV Congreso de la SECAL 2017**. Kanaria Handia, 2017ko ekainaren 13tik 16ra.
- ✓ (4) Estrategias para incrementar la citación de la producción científica. **XIV Foro Internacional sobre la evaluación de la calidad de la investigación y de la producción científica**. Granada, 2017ko ekainaren 22tik 24ra.
- ✓ (5) Evolución de las revistas españolas en JCR y en SJR (2006-2015). **XIV Foro Internacional sobre la evaluación de la calidad de la investigación y de la producción científica**. Granada, 2017ko ekainaren 22tik 24ra.
- ✓ (6) Nuevas tendencias en la datación de documentos. **XXXVI Reunión Bienal de la Real Sociedad Española de Química-RSEQ**. Sitges, 2017ko ekainaren 25etik 29ra.
- ✓ (7) Scientific Computing Research at the IZO-SGI SGIker UPV/EHU. **THEOBIO17**. Donostia, 2017ko ekainaren 26tik 30era.
- ✓ (8) Biobanks: our legacy. **4th International Conference on Environmental Specimen Banks**. Bilbo, 2017ko urriaren 2tik 4ra.
- ✓ (9) Implementation of new experiments in AV NEO. **Frontiers in Biomolecular NMR Conference**. Derio-Bizkaia, 2017ko azaroaren 17tik 23ra.
- ✓ (10) Tracking electronic coupling in polyatomic molecules by sub-25 fs UV pulses. **USTS 2017**. Salamanca, 2017ko azaroaren 22tik 24ra.

4.4. Internazionalizazioa

Hainbat adierazle hartzen dira kontuan SGIkerren jardueraren internazionalizazioaren islatzat. Adierazle horiek erakusten dute atzerriko zenbat erakunde dauden, nazioko erakundeen aldean; halaber, SGIkerrek babestutako nazioarteko tesien ehunekoa azaltzen dute, UPV/EHU guztiko nazioarteko tesien ehuneko osoaren aldean.


Adierazle horiek honako 14.-18. iruditan eta 8.taulan jaso dira.




14. irudia. Nazioko eta atzerriko erakunde kontratatzaileen bilakabidea.

JATORRIAREN ARABERA	ERAKUNDEAK	UNIBERTSITATEAK
Errezuma Batua	4	4
Portugal	2	2
Suitza	2	1
Italia	1	-
Frantzia	1	-
Estatu Batuak	1	-
Belgika	1	-
Guztira	12	7


8. taula. Kanpoko erakundeen jatorrizko herrialdeak, unibertsitateak diren adierazita.




15. irudia. Atzerriko erakundeen ehunekoaren bilakabidea, kanpoko kontratatzaile guztien aldean.



16. irudia. SGIkerren babestutako nazioarteko tesien ehunekoaren erkaketa.



17. irudia. SGIkerrek lagundutako eta beste herrialde batzuetako ikertzaileekin lankidetzan eginiko argitalpenak.



18. irudia. SGIkeren laguntzarekin WOSen eginiko ekoizpenaren banaketa, egileen afiliazio geografikoaren arabera.

4.5. SGIkerren prestakuntza eskaintza

Prestakuntza eta dibulgazio jarduerak gazte eta ikasleekin

2017. urtean, ondoz ondoko zortzigaren urtez, SGIkerrek 2 neska ikasle eta 3 mutil ikasle (5 guztira) hartu dituzte goi mailako prestakuntza moduluetatik, beren prestakuntza lantokietan egindako praktiken bidez osa dezaten (3 hilabeteko egonaldia). Ikasle horien erreferentziazko ikastegiak (dagozkion hitzarmenak sinatu dira) Goi Mailako Lanbide Heziketako Elorrieta Erreka Mari Institutua eta Goi Mailako Lanbide Heziketako San Jose de Calasanz Institutua dira.

Egonaldiaren amaieran, ikasleek praktiken amaierako memoriak aurkeztu zizkieten programako irakasle tutoreei, 2017ko maiatzaren 15ean eginiko dibulgazio jardunaldi baten bidez.

Jarduera honen barruan, nabarmentzekoa da tutore gisa jardun duten SGIkerretako bi teknikari "programako irakaslerik onena" izateko hautagai gisa proposatu zirela.

Bestelako dibulgazio eta prestakuntza modalitateak dira etorkizuneko gazte ikertzaileentzat antolatutako jarduerak (ikertzaile bokazioa sortzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle gazteen artean). Zehazki, Bilboko La Salle ikastetxeko 26 ikaslek parte hartu dute 2017ko urtarrilean eginiko hiru jardueratan.

Aurreneko aldiz, Kimika Graduako ikasle batek Bizkaiko Analisisirako Zerbitzu Zentralean egin du gradu amaierako lana.

Ikerketarako teknologiak: prestakuntza eskaintza


SGIkerren prestakuntza eskaintzari dagokionez, adierazi behar da UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren arabera ziurtatu dela SGIkerren jarduera arlo guztietan egiten diren prestakuntza etengabeko ikastaroen diseinu, eskaintza, irakaskuntza eta ebaluazio prozesu guztia.

Eskaintzan irakatsitako ikastaroei dagokienez, 2017an 17 prestakuntza ekintza egin dira (9. taula).

IKASTAROEN ESKAINTZA ETA ESKAERA	2013	2014	2015	2016	2017
Guztira emandako ikastaroak	22	18	16	25	17
Eskaintzako ikastaroak	18	16	16	20	15
Ikastaro bereziak	4	2	0	5	2
Eskaini eta eman ez diren ikastaroak	5 (%18,5)	8 (%30,7)	7 (%29,2)	8 (%24,2)	7 (%29,2)

9. taula. Prestakuntza eskaintzaren adierazle nagusiak.

2017an emandako prestakuntzaren iraupen osoa 345 ordukoa izan da (19. irudia). Emandako prestakuntzaren batez besteko iraupena ikasturteko 20,29 ordukoa izan da (19,72 ordu/ikasturte 2016an).



19. irudia. 2013-2017 artean emandako prestakuntza orduen bilakabidea.

2017. urtean 195 pertsona aritu dira SGikerretan prestakuntza hartzen, irakasleak, senior ikertzaileak, junior ikertzaileak, doktorego aurreko ikasle eta ikertzaileak, eta enpresetako langileak gehituta. Datu horiek 10. taulan ageri dira.

PARTE-HARTZAILEAK	2013	2014	2015	2016	2017
Parte-hartzaile kopurua	213	154	134	289	195
Eskaintzako ikastaroetakoak	192	146	134	167	139
Ikastaro berezietakoak	21	8	0	122	56


